Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 384

Azaroak 1, 2020

Antzinako izurriteen errepasoa Oiasso museoan

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Berri laburrak
4 Euskaraldia
5 Izurriteak antzinaroan
6 Iñigo Muguruza beka
7 Behobia-Donostiarik ez
8 Kirolak: Espainiako Itzulia
9 Kirolak: Bidasoa XXI waterpolo
10 Irun Aurrera bonoak
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Ibon Azpilikueta
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
- FAMILIAREN ATSEDENERAKO
- ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
- GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1920. urteko aldizkaririk topatu ezean, 1918. urteko argitalpenak egokiak izan daitezke duela mende bat Irunen albiste ziren gertaerak errepasatzeko. Horrela, 1918ko azaroaren 10ean Irunen argitaratutako "El Bidasoa" aldizkaria Asunción Rodríguez Balzolaren heriotzaren berri ematen duen eskelarekin hasten da. Ostean, E. Esparzak idatzitako artikulu zabal batean Baroja idazleak argitaratutako azken lanean idazkeraren inguruan emandako jarraibideen laburpena egiten du. Lehen Mundu Gerraren amaiera ospatzeko omenaldi deialdia irakur daiteke jarraian, hiritarrak giro baketsuan eta bando desberdinen artean akusaziorik gabeko ekitaldian parte hartzeko gonbita luzatzen da. "Cosas que se pasan en Irun" atal ohikoaren barnean, Mañuel kolaboratzailea osasun krisialdiaren inguruan txantxak egin ostean, gripea hartu duela onartzen du eta gaixotasuna nola pasatu duen kontatzen du.

"La alegría de vivir" tituluarekin artikuluan hirian gripearen izurriteak utzitako ondorioak aipatzen dira, jarraian inguruko herrialdeek eskainitako laguntza aipatzen delarik. Kirol kronikan, berriz, eguraldi txarraren ondorioz bertan behera gelditu ziren partiduen data berriak iragartzen dira. Beste kirol hitzorduen inguruko xehetasunak azaltzeaz gainera, Ignacio Arabolaza jokalaria omentzeko diru-bilketak izandako arrakasta aipatzen da. "De la cuenca" atalean Gaucho Panperok Elizondon antolatutako antzerki emanaldien inguruko idatzia argitaratzen du. Ondoren, Satarkak "Juantxo Arrua" titulua daraman olerkia publikatzen du aldizkarian. "Agarrese que hay curvas" tiuluaren azpian, "El Pueblo Vasco" egunkariko kazetari batek Plaiaundi inguruan egindako aurkikuntza baten berri ematen da. "Notas Municipales" atalak azken udal bilkurako erabakiak biltzen ditu.

Thethe kolaboratzaileak Irunek behar dituen hobekuntza eta udal aurrekontuen erabileraren inguruko gogoeta argitaratzen du aldizkariaren 167. zenbakian. Jarraian, aldizkariko kazetariek irakurleek bidalitako gutun eta iradokizunei erantzuten diete modu labur batean. Antzokien hurrengo egunetarako programazioaren ostean, B. Urizek fruta arbolen zainketarako aholku berriak argitaratzen ditu. Beti bezala, aldizkaria "Noticias" eta "Ecos de Sociedad" atal ohikoekin amaitzen da publizitate orrialdeari paso emateko.

Argazkiak:
G38493: Merkatuaren plaza, gaur egun Genaro Etxeandia dena, 1924. urtearen aurretik.
G12290: Jendea Santiago kalearen amaieran Bidasoa ibaia bainatzen (1950. urtearen inguruan).
G38225: Behobiako auzoaren sarreran 50.- 60. hamarkaden inguruan, egun Maria Juncal Lanbandibar kaleari dagokion eremuan.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Kulturaren sektorea laguntzeko talka plana abiatu du Irungo Udalak

Irungo Udalak Kulturaren sektorea laguntzeko talka plan berezia abiatuko du. COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioak arintzen laguntzeko, helburua bereziki kolpatua izan den kulturaren sektorea bultzatzea izango da "0 Km-ko Kultura" talka-plana abian jarriz.

Talka plana tokiko kultur eragileei laguntza emango dien kultur agenda bat sortzean datza, zerbitzuak emateko kontratazioaren bidez, baina, aldi berean, proposamenak herritarrengana fisikoki hurbilduz, formatu txikiaren alde eginez eta espazio ez formaletan. Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak azaldu duenez, "hilabete hauetan kultura seguru baten aldeko apustua egiten ari gara". Kultur ordezkariak azpimarratu duenez, "harago joan nahi dugu, epe motz-ertaineko estrategia bat markatuko duen txoke-plan batekin, tokian-tokian kulturaren alde lan egiten duten profesionalengan zentratuta". Hala ere, plan honen garapena pandemiaren bilakaeraren eta egoera epidemiologikoaren mende egongo da uneoro.

Talka-plan honetako ekintzak bi motatakoak izango dira. Batetik, ekintza iraunkorrak izan daitezke, zeharkako onura luzea eragiten dutenak. Bestetik, ekintza puntualak, sortzailearentzat, kultura-eragilearentzat edo erakundearentzat zuzeneko onura dakartenak. Ahal den neurrian, banakako pertsonekin lan egitea lehenetsiko da, ekintza handiek baliabide gehiago kontsumitzen dituztela kontutan hartuta. Horretarako bestelako espazioak erabiliko dira, hala nola, Menchu Gal aretoa, Amaia Kultur Zentroko dantza-aretoa edo hiriko guneak. Proposamen berezi horiei irtenbidea emateko, programazioaren intentsitate handieneko datak saihestuko dira, proposamen berritzaileak sustatzeko eta eragileen arteko lankidetza sustatzeko. 1.500 eta 2.000 euro arteko caché-a ordainduko da, proposamenaren arabera.

Kultur-eragileen alboan

Kulturaren edozein arlotako pertsona fisiko edo juridikoek parte hartu ahal izango dute programa honetan (arte eszenikoak, ikusizko arteak, literatura, komikia eta ilustrazioa, musika, ikus-entzunezkoak, diseinua eta abar), eta lehentasuna emango zaie kulturaren edozein arlotan lan profesionala egiten dutenei, bizilekua Irunen dutenei eta lana hirian egiten dutenei. Era berean, pandemiaren ondorioz bizitza kulturala gelditu izanaren ondorioz diru-sarrerak nabarmen murriztu zaizkienei erreparatuko zaie.

Talka-plan horretan parte hartzeko, Kulturaren arloa identifikatuta dituen sortzaileei, kultura-eragileei eta kultura-erakundeei zuzenduko zaie, eta proposamen zehatzak egingo dizkie. Era berean, interesa duen edozein eragileri gonbita egingo zaio Udalari bere proposamenak edo, besterik gabe, programa honetan parte hartzeko interesa aurkez diezaion eta egin daitezkeen ekintzak adosteko. Proposamenak bidaltzeko edo informazio gehiago lortzeko, profesionalek helbide elektroniko honetara idatz dezakete: cultura@irun.org

Irun Aurrera planean kokatutako programa honek 50.000 euroko aurrekontua du. Kontuan hartuko dira proposamenaren kalitatea eta interesa, egile, obra edo formatu ezohikoen edukiera duen ikuskizuna, proposamenaren edertasun estetikoa, originaltasuna eta berrikuntza, haren bideragarritasuna (baldintza ekonomikoetara, espazioetara eta abarretara egokitzea gauzatu ahal izateko), caché kontzeptuen eta ekoizpenaren arteko oreka, proposamenaren interes soziala (gizartean dauden gaiei heltzen diena), eta/edo eragileen arteko lankidetzak aintzat hartzea.

Azaroaren 15era arte Félix Recondoren lanak ikusi ahalko dira Amaiako erakusketa aretoan

Amaia Kultur Zentroko erakusketa aretoa itsuraz aldatu da Félix Recondo margolari eta eskultore irundarraren lanak erakusteko. Artista irundarra 2015. urtean zendu zen. Helena Elbusto komisario-lanetan, 4 urterekin Iparralde etorbideko etxetik Frantziara ihes egin zuen eta sorterrira inoiz itzuli ez zen artistaren inguruan estatuan egin den lehen erakusketa antolatu du. Herbesteak Félix Recondo Michelenaren lanetan eragina izan zuen.

Erakusketa azaroaren 15era arte bisitatu ahalko da asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara. Hortaz gain, erakusketak CBA udal liburutegian ikusgai dagoen luzapena du.

Irungo erakusketak Félixen ibilbide artistikoaren laburpena eskaintzen du, bere bizitzan zehar landu zituen pintura eta eskultura sei teknika ezberdinak erabiliz: pintura grafitoarekin, zilar eta pastelezko punta, brontzezko eskulturak eta terrakota eskaiola. Orokorrean, aurretik Irunen zein beste inon erakutsi ez diren lanak dira, izan ere, Félix Recondoren azken etxebizitzatik zuzenean Irunera ekarri direlako. Bere bizitzako azken urteetan zehar artista Irundik 3 ordura kokatutako Le Mas-d'Agenais herrian bizi izan zen eta bere etxebizitza bere tailerrean bihurtu zuen.

Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariaren hitzetan, "azken urteetan zehar Amaia Kultur Zentroan egin den erakusketa konplexuena da hau, artelanen hauskortasunak artelanen garraioa zaildu baitu". Horregatik, Kultur arlotik artistaren Léonor alabari eta Cécile Humeau alargunari erakusketaren antolaketan laguntzeko haien kolaborazioa eskertu dute. Artelanez gainera, erakusketa aretoan artistaren ibilbide artistikoa errepasatzeko alabaren eta komisarioaren arteko 20 minutuko elkarrizketa ikusi daiteke.

Artearen inguruko bizitza

Arkitektura ikasi eta gaztaroan zehar eremu horretan lan egin ostean, 40 urte bete zituenean Félix Recondok dena uztea eta artista izatea erabaki zuen. Erabaki horri esker 80. eta 90. hamarkadetan zehar ibilbide garrantzitsua izan zuen Frantziako estatuan, garai hartako Pariseko galeria-jabeekin harremana izatera iritsi zelarik. Hortaz gain, atzerrian zenbait erakusketa egin zituen, hala nola, Estatu Batuetan, Suedian, Danimarkan eta Italian. Zenbait urtez Italian bizi izan zen eskulturaren munduan murgiltzeko.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Hilabete baino gutxiago falta da Euskaraldiaren bigarren edizioari hasiera emateko

Hilabete baino gutxiago falta da azaroaren 20an Euskaraldiaren bigarren edizioari hasiera emateko. Hamabost eguneko iraupena izango duen ariketa sozialean norbanako gisa izen-ematea egiteko aukera zabalik dago oraindik. Hortaz gain, Euskaraldia hasi aurreko egunetan ariketa girotzeko programazioaren barruan antolatuko diren lehen ekintzen berri eman da.

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den Euskaraldiaren bigarren edizioan Ahobizi edo Belarriprest gisa parte hartu nahi dutenek azaroaren 19ra arte izango dute ariketa sozialean izena-emateko aukera. Momentuko egoera dela eta, izen-emateak Euskaraldiaren webguneren bitartez egitea lehenetsiko da. Gainera, 2018ko edizioan parte-hartu zuten norbanakoen posta-elektronikora 2020ko edizioan izen-ematea egiteko esteka partekatu zaie zuzenean. Euskaraldiaren antolakuntzatik jakinarazi denez, posta-elektronikoaren zabor-posta atalean begiratzea komeni da mezua sarrerako ontzian topatu ezean.

Urriaren 27ra arte 840 norbanako izena eman zuten Irunen 2020ko Euskaraldian parte hartzeko. 2018ko data berean 961 pertsonek izena emana zuten Irungo Euskaraldian parte hartzeko, kontutan izanik, orduan izen-emate epea irailaren 20ean ireki zela eta aurten, berriz, irailaren 24ean hasi dela. Orain arte izen-ematea egin duten norbanakoen %80ak Ahobizi rola aukeratu du, gainontzeko %20ak Belarriprest rolean aritzeko konpromisoa hartu duen bitartean. Zentzu horretan, 2018ko ariketaren datuekin alderatuz gero, rolen hautaketari dagozkion portzentajeak oso antzekoak dira aurreko edizioarekin alderatuta.

Euskal Herri osoan 6.737 entitatek izena eman duten bitartean, Irunen 85 entitatek eman dute izena. Hirian, zehazki, 376 Arigune erregistratu dira. 2020ko Irungo Euskaraldian parte hartzeko erregistratutako Ariguneen %47 Barne Ariguneak dira eta %53a, berriz, Kanpo Ariguneak.

Girotze-programazioa

Euskaraldia hasi aurretik, hiria ariketa sozialaren inguruan girotzen hasteko zenbait jarduera egitea aurreikusi da. Dena dela, Lide Rekondo Irungo dinamizatzaileak azaldu duenez, "osasun krisialdiaren bilakaera dela eta, aurreikusitako ekintzak momentuko egoera eta murriztapenen arabera moldatu behar izatea gerta daiteke". Beraz, girotze-programaren barnean aurreikusitako ekintza gehienen data, ordutegia eta lekua zehazteke daude oraindik, ekintzen eguna hurbildu eta momentuko egoera zein den ezagutu arte. Lide Rekondo dinamizatzaileak adierazi duenez, ekintzak itxi eta zehazten doazen heinean Irungo Euskaraldiaren eta posta-elektronikoaren bitartez zabalduko dira nobedadeak.

Hasierako aurreikuspenak beteko balira, urriaren 30ean Amaia hitzaldi aretoan 19:00etan, eskualdeko sortzaileekin solasaldia egingo da. Jorge Gimenez, Pello Otxoteko, Maite Darceles eta Ainara Maia sortzaileek parte hartuko dute bertan eta solasaldian Bidasoaldeko literatur sortzaileen lehen esperientzia eta egun literaturgintzak eskualdean bizi duen egoeraren inguruan gogoeta egingo da. Aurretiaz irun@euskaraldia.eus helbide elektronikora idatziz edo 647 97 58 85 telefono zenbakira deituz ekitaldian parte hartzeko izena eman beharko da.

Urriaren 30ean eta azaroaren 7an hirian Euskaraldiaren informazio-puntuak kokatzeko asmoa dago, baina, momentuko osasun egoeraren arabera erabakiko da ekintza hau egiteko aukerarik dagoen edo ez. Hortaz gain, ariketa hasi aurreko bi asteetan zehar txapen banaketa egiteko egun desberdinak antolatuko dira. Gainera, arratsaldez, zenbait formazio saio antolatzeko asmoa

dago, ariketaren inguruan sortutako zalantzak argitu ahal izateko.

Batzordea eta Talde Eragilea martxan

Euskaraldia Batzordea Irungo Euskaraldia antolatzeko helburuarekin sortutako talde irekia da eta hiritar guztiek dute bertan parte hartzeko aukera. Euskaraldia Batzordearen funtzioa Irungo ekimenaren marko orokorra marraztea izango da, Talde Eragileak egindako proposamenak onartu eta ariketaren antolaketa laguntzeko iradokizunak eginez. Euskaraldia hasi arte, Batzordea hilero bilduko da. Hortaz, Euskaraldia Batzordearen hurrengo bilerak azaroaren 12an eta abenduaren 10ean egitea aurreikusita dago. Euskaraldiaren Batzordearen bileretan modu presentzialean parte hartuko ahalko duten pertsonen kopurua murriztuta egongo denez, bilkuretan era telematikoan parte hartzeko aukera eskaintzen da bileraren egunean bertan Irungo Euskaraldiaren sare-sozialen bitartez zabaltzen den "Meet" webguneko estekaren bitartez.

Talde Eragilea, berriz, ariketa sozialaren antolaketarako lantalde operatiboa da. Taldearen funtzioa Euskaraldia Batzordean erabakitakoa martxan jartzea izango da, Batzordeari proposamenak eginez. Beraz, erabaki potoloak Batzordeak hartuko ditu eta Talde Eragileak exekutatuko ditu. 9 kidek osatzen dute talde eragilea, hau da, 7 norbanako, dinamizatzaileak eta Udaleko ordezkari batek. Orain arte, irailaren 24tik, Talde Eragilea 5 aldiz bildu da, 3 aldiz aurrez aurre eta 2 modu telematikoan (Jitsi bidez).

Komunikazio-ekintzak

2020ko Euskaraldia hasi aurretik, girotze-programazioaz gainera, arikera sozialaren bigarren edizioari lotutako informazioa ahal bezain beste zabaltzeko zenbait komunikazio-ekintza burutuko dira. Esaterako, bainu publikoetan, auzo elkarteetan eta eraikin publikoetan, besteak beste, Euskaraldiaren bigarren edizioarekin loturiko informazioa zabaltzeko kartelak ipiniko dira. Gainera, Ariguneek kartel identifikagarriak izango dituzte eta ariketako entitate parte-hartzaileekin bideo bat sortuko da. Hortaz gain, hiriko zenbait irratietan irrati-kuinak ipiniko dira, ariketak zabalkunde handiena izan dezan.

Juanjo Jiménez, Oiasso Museoko zuzendaria:

"Pandemiak historian zehar jazotako gertakari arruntak izan dira"

Oiasso Museoan "Izurriteak antzinaroan: Erroma gaixotasunen aurrean" izeneko erakusketa martxan dago. Momentuko testuingurua aprobetxatuz, erakusketaren helburua ia 800 urtez mundu erromatarrak pairatu zituen izurriteen inguruko informazioa eta datu esanguratsuak zabaltzea da. Juanjo Jiménez Oiasso Museoko zuzendariak urtarrilaren 31ra arte martxan egongo den erakusketaren xehetasunak azaldu ditu.

Zer ikusi daiteke erakusketan?
Oiasso Museoan panelez osatutako erakusketa txiki bat prestatu dugu hainbat zibilizazioek historian zehar jasandako izurriteen inguruan hitz egiteko. Horrela, egun bizi dugun egoera orain dela 2.000 urte ere gertatu zen zerbait dela konturatuko gara. Erakusketa atal desberdinetan banatuta dago. Izurriteen testuingurua azaltzeaz gainera, tratamendu, sintoma eta ondorioen inguruko informazioa bildu dugu. Bukatzeko, izurriteek Baskonian nolako eragin izan zuten aztertzen da.

Urte hasieratik aurreikusita zegoen erakusketa hau egitea?
Ez, egoera honek gure planak guztiz aldatu ditu. Covid-19ak bakoitzari gogoeta ezberdinak planteatzen dizkigu eta historian atzera eginez gero, adibidez, orain dela mende bat Gripe Espainolak eragindako ondorio larriak topatuko ditugu. Horrela, pandemiak historian zehar jazotako gertakari arruntak izan dira eta Erromatar kulturak horren adibide ematen digu. Konparaketa eginez gero, orain dela 2.000 urte izurriteen aurrean biztanleriak zein politikariek hartutako jarrera hain desberdina ez zela ikusiko dugu.

Alde handia dago egungo eta antzinako pandemien artean?
Gaur egun zorionez zientziaren garapenaren abantaila daukagu eta Erromatar garaian, ordea, ez zegoen horrelako aurrerapenik. Hala eta guztiz ere, Erromatar garaian jendea kutsatutako hirietatik aldentzea bezalako gomendioak zabaltzen zituztela dakigu, gaixotasuna gehiago zabaltzea ekiditeko. Hortaz gain, zenbait tokietan ohi baino garbitasun neurri zorrotzagoak ere exijitzen zituzten. Egun gertatzen den bezala, horrelako egoeren aurrean biztanleriak momentuko agintariei babesa eskatzen zien eta gerra, gosete edo izurriteen errua haiei egozten zien. Erromatarrek mosaikoak sortzen zituzten, adibidez, honelako gaitzek aberats eta txiroen artean ezberdintzen ez zutela adierazi eta izurriteen aurrean heriotza saihestea ia ezinezkoa izaten zela erakusteko. Erromatarrek mosaikoak izurriteen aurrean "carpe diem" gisako mezuak zabaltzeko erabiltzen zituzten.

Orduan ere izurriteen inguruan diskurtso sozial eta politikoak eraikitzen ziren?
Bai, pandemiek krisialdi sakonak eragin ohi zituzten, gerra edo goseteekin loturik. Askotan armadaren bitartez izurriteak asko zabaltzen ziren. Ondorioz, orain bezala, biztanleriak gertakarien inguruko gogoeta egitera behartuta zegoen. Hain zuzen ere, denborak aurretik hartutako neurrien akatsak eta hobetu beharrekoak azaleratzen baititu.

Zein egun eta ordutegian bisitatu daiteke erakusketa?
Doako erakusketa da eta museoaren ordutegi normalean bisitatu daiteke. Orain Oiasso Museoan neguko ordutegia daukagu, hau da, goizeko 10:00etatik 14:00etara, asteartetik igandera. Ostiral eta larunbatetan ere museoa zabalik dago, arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara.

Gaurkotasun handiko gaia denez, erakusketa bisitari asko erakartzen ari da?
Bai, gainera, zenbait ikastetxeetako arduradunek ikasleekin erakusketa bisitatzeko interesa erakutsi dute. Hala ere, momentuko egoera dela eta, protokoloak bete eta ikasle taldeekin bisita gidatuak egin ahal izateko gauzak nola antolatu behar ditugun aztertzen ari gara oraindik, egoera oso aldakorra baita. Orokorrean, erakusketa inauguratu genuenetik erakusketarekiko interesa erakutsi duten bisitari asko jaso ditugu. Azken finean, gaurkotasunezko gaia denez, jendearen interesa piztea errazagoa da, iraganean gertatu bezala egun ere izurrite honi aurre egin eta aurrera jarraitzeko gai izango garela ikusteko.

Momentuko testuingurua dela eta, erakusketa bisitatzeko neurri bereziak dituzue?
Bai, noski. Museoaren edukierak murriztuta dugu eta eraikinera sartzerakoan eskuak garbitzea beharrezkoa da. Instalakuntzetan eta bisita osoan zehar maskara erabiltzea derrigorrezkoa da. Neurri guzti hauen bitartez berriro jendea museora erakarri nahiko genuke, segurtasun gomendio guztiak betez konfinamendu aurreko ohiturak berreskuratzeko.

Nola egokitu da Oiasso Museoa normaltasun berrira?
Egoera guztiz desberdina da. Ikastetxeen bisitak egokitzeaz gainera, mota honetako bisiten kopurua era nabarmenean murriztu da. Momentu honetan museoak bizi duen egoera erraza izan ez arren, datozen hilabeteak ahal den moduan igarotzeko egokitu beharko gara, pixkana egoera honetatik ateratzea lortu arte. Dena dela, Oiasso Museotik eskaintza kulturala, hau da, erakusketak, hitzaldiak edo FICAB bezalako jardunaldiak antolatzen jarraitzeko ahalegin guztia egingo dugu, beti ere, unean uneko segurtasun neurriak errespetatu eta horietara egokituz.

Asier Suberbiolak Iñigo Muguruza musikaren izena eta lana zabaltzeko ikerketa bekaren I. edizioa irabazi du

Asier Suberbiolak Iñigo Muguruza musikariaren izena daraman ikerketa bekaren I. edizioa irabazi du. 2019ko irailean Iñigo Muguruza zendu ostean, Irungo Udalak musikari irundarraren izena eta izana gogoratzeko ikerketa beka bat sortzeko erabakia hartu zuen. Guztira, 4 proiektu aurkeztu ziren deialdira eta, azkenean, musikari donostiarrak aurkeztutako proiektua izan da bekaren irabazlea.

Martxoan Irungo Udalak Iñigo Muguruza musika ikerketako beka sortu zuela iragarri zuen. Ikerketa beka zendutako irundarrak musikari eta Irungo Kontserbatorioan irakasle gisa egindako ekarpena oroitarazi eta zabaltzeko helburuarekin sortu da. José Antonio Santano Irungo alkateak azaldu duenez, "Irungo Udalak aho batez Iñigo Muguruzaren izena eramango zuen beka bat antolatzea adostu zuen". Bekaren I. edizioa aurkeztu eta egun gutxitan estatu osoan alarma egoera ezarri zenez, proiektuak aurkeztu zein deialdiaren ebazpena jakinarazteko epeak atzeratu ziren. Alkatearen hitzetan, "bekaren bitartez Iñigo Muguruzaren izena eta Irun hiria betirako loturik geldituko dira".

Ikerketa bekaren I. edizioan Asier Suberbiola donostiarrak aurkeztutako "Iñigo Muguruza somenerako ikasmateriala" proiektua izan da garaile. Rebeca González Hezkuntza Ordezkari eta Kontserbatorioko presidenteak adierazi bezala, "bekaren bitartez Iñigo Muguruzak musikari, interpretatzaile, konpositore eta irakasle bezala egindako lana errekonozitu nahi da" Helburua Euskadin azken lau hamarkadetan musika modernoarekin zerikusia izan duten gaiei buruzko ikerketa sustatu nahi du udalak. Irabazlearen izena jakinarazi ostean, musikari donostiarrak 8.000 euroko zenbatekoa irabazi ostean, 8 hilabete barru aurkeztu beharko ditu lanaren emaitzak.

José Antonio Santano Irungo alkateak azpimarratu zuenez, Irungo Udalak ez dauzka beka asko. Izan ere, ikerketa beka berri hau sortu aurretik, Serapio Mugika eta, José Antonio Loidi beka ziren udalak antolatutako beka deialdi bakarrak. Hirugarren beka honek ezaugarri ezberdinak dauzka, hala ere, beka sortzea erabaki zenean alkateak azaldu duenez, Iñigo Muguruzaren izena zein mailan kokatu nahi zuten argi eta garbi izan zuten.

Irungo Udaleko ordezkariek eta Jabier Muguruzak epaimahaiak aurkeztutako 4 proiektuen artean irabazlea hautatzeko egindako aukeraketa lana eskertu dute. Hortaz gain, Pedro Martínez Kontserbatorioko zuzendariak proiektua aurrera ateratzeko egindako esfortzuari aipamen berezia egin diote. Pedro Martínezek alkatearen dei baten bitartez jaso zuen ikerketa beka martxan jartzeko enkargua. Jabier Muguruzak azaldu dunez, "familiaren izenean eskerrak eman nahi dizkiot proiektua enkargu bezala ulertu ordez, proiektu pertsonal gisa garatzeko erakutsitako jarrerarengatik".

Zaletasun partekatuak

Iñigo Muguruzak eta Asier Suberbiolak musika ulertu eta bizitzeko modua partekatzen dute. Hain zuzen ere, Jabier Muguruzak, Iñigoren anaiak azaldu duenez, "Iñigoren bizitzak 2 ardatz nagusi zituen: zuzeneko musika eta irakaskuntza". Anaiaren bizitzan funtsezkoak izan ziren eta bi arlo horien inguruan eman zuen bere bizitza profesionala. Jabier Muguruzak onartu duenez, "Iñigo bi arlo horiek noizbait berreskuratzeko ilusioarekin bizi zen". Iñigoren anaiak azpimarratu duenez familiarentzat oso pozgarria izan da Iñigo Muguruza bekaren I. edizioa martxan ikustea, batez ere, osasun krisialdiak eragindako egoera berezia tartean harrapatu arren, azkenean deialdia aurrera ateratzea posible izan delako.

Jabier Muguruza, Iñigo Muguruzaren anaia

Asier Suberbiolak aurkeztutako proiektuak bi arlo horien uztarketa planteatzen du. Musikaren ikerketa bekaren I. edizioko irabazleak adierazi duenez, "Iñigo Muguruzaren unibertsoan sartzea prozesu naturala izaten ari da, txikitatik entzun dudan musika delako". Suberbiolak onartu duenez, etxean anaiekin batera eta, beranduago, kalean lagunekin parrandan entzun izan ditu Iñigo Muguruzaren talde desberdinen abestiak. Gainera, bekaren I. edizioaren irabazleak errekonozitu duenez, zuzeneko musika eta irakaskuntza bere bi pasioak dira, kontserbatorioan biolin ikasketak egiteaz gainera, unibertsitatean pedagogia ikasketak burutu baitzituen.

Asier Suberbiolaren hitzetan, "nire lanaren bidez musika herrikoiari bere identitatea emateko lanketa egin nahi dut". Bekaren irabazleak azaldu duenez, musika herrikoiari behar duen balioa eman nahi dio, momentuko egoerak aisialdiak eta bertan entzundako musikak nolako garrantzia duen erakutsi baitu. Proiektuak bigarren atalak kutsu pedagogikoa izango du, partituretatik harago, Iñigo Muguruzaren taldeen abestiak berrinterpretatzeko aukera eskaintzeko.

Horrela, musikariak musikaren bitartez belaunaldi ezberdinen arteko zubia eraiki nahi du, musika modernoaren garapenari buruzko "erradiografia" eginez. Jabier Muguruzak azaldu duenez, "bekak Iñigoren memoria bizirik mantentzen lagunduko du eta, hortaz gain, herri musikaren ikerketan ekarpen handia suposatzea espero dut".

Musikari eskainitako bizitza

Iñigo Muguruza 2019ko irailaren 5ean zendu zen. Bere bizitzan zehar Kortatu, Negu Gorriak, Delirium Tremens edo Joxe Ripiau bezalako taldeetan gitarra-jotzaile gisa aritu zen. Hortaz gain, 25 urtez Irungo Udal Musika Eskolako gitarra elektrikoko irakasle lanetan aritu zen. Irungo Udalak ikerketa bekaren bitartez musikari irundarraren izena eta ekarpena aurrerantzean gogoratzea posible izango da.

Behobia-Donostia lasterketarik ez urte ezohiko honetan

Abuztuko hilabetearen amaieran Fortuna Kirol Elkarteak 2020. urteko Behobia-Donostia lasterketa egingo ez zela jakinarazi zuen. Pandemiaren bilakaera dela eta, lasterketaren aurtengo edizioa antolatzeko ahalegin guztiak egin diren arren, antolatzaileek proba bertan behera uztea erabaki dute. Arrazoia lasterketa osatzen duten pertsona guztientzat inguru erabat segurua bermatzea ezinezkoa dela da.

Behobia-Donostia lasterketaren asteburuan hiriko merkataritzak eta hotelen sektoreak kirol hitzorduaren antolaketaren ondorio positiboak nabaritzen ditu. Aurten, ordea, azaroko lehen astebururako ohi baina zifra baxuagoak espero dituzte. Kirolaren sektorearekin lotura duten merkatarien kasuan, Deportes González dendako Ángel Gozálezek azaldu duenez, "lasterketaren aurreko hilabeteetan jendeak entrenatzen hasteko kirol arropa erosten duela nabaritu ohi dugu". Deportes González kirol dendatik urteko lasterketaren azokan parte hartzeaz gainera, Adidas markako zapatilak erosteagatik Behobia-Donostia lasterketan izen-ematea dohainik egiteko aukera eskaini ohi dute.

"Lasterketaren aurreko hilabeteetan jendeak entrenatzen hasteko kirol arropa erosten duela nabaritu ohi dugu"
Angel González, Deportes González dendako salmenta arduraduna

Hotelen kasuan, Behobia-Donostia lasterketaren asteburuan Irungo hotelen okupazioa %100ekoa izan ohi da hiriko Urdanibia Park eta Ibis hoteletako arduradunek baieztatu dutenez. Javier Arabolaza, Urdanibia Park hoteleko harrera arduradunak azaldu duenez, lasterketaren asteburuan Kemen taldeko kirolari elbarrituak jasotzen dituzte urtero. Hortaz gian, Frantzia eta Kataluniatik etorritako bezero asko jaso ohi dituzte ere. Irungo Ibis hoteleko Tania Pazos zuzendariondokoak gaineratu duenez, udazken eta neguan Behobia-Donostia bezalako kirol ekitaldi handien antolakuntza oso garrantzitsua da hotelen sektorea denboraldi baxuan laguntzeko. Hain zuzen ere, lasterketarik gabe, Irungo Urdanibia Park eta Ibis hotelean okupazioa %10ean aurkitzen baita.

Espainiako Itzuliaren eragina

2020ko Behobia-Donostia lasterketaren azaroaren 8an egitea aurreikusita zegoen. Lasterketaren hitzordua bertan behera gelditu bada ere, aste batzuk lehenago hirira 2.500 pertsona inguru hurbildu ziren Espainiako Itzuliari hasiera emateko. Urtero Behobia-Donostiak erakarri ohi dituen zifrekin alderatzea ezinezkoa bada ere, hotelek okupazioak gora egin du era nabarmenean. Tania Pazos Irungo Ibis hoteleko zuzendariondokoak azaldu duenez, "Espainiako Itzulia hasi aurreko asteburua hotelaren okupazioa %100ekoa izan da". Javier Arabolaza Urdanibia Park hoteleko Harrera arduradunak adierazi duenez, asteburu horretan Espainiako Itzulian parte hartzen duen kirolari talde bat eta Holanda eta Belgikatik etorritako kazetariek osatu hartu zuten. Angel Gonzálezek, ordea, Deportes González dendan Irun Espainiako Itzuliaren abiapuntu izateak inolako eraginik izan ez duela baieztatu du, agian, ostalaritzaren kasuan txirrindularitza ekitaldiaren eragina gehiago nabarituko zutela suposatuz.

Lasterketaz gozatzeko aukera ezberdinak

Fortuna Kirol Elkarteak Behobia–Donostia lasterketa birtualaren lehen edizioa aurkezten du. Formatu berri hau BSS Birtuala azaroaren 2tik 8ra ospatuko da, eta BSS astea izena hartuko du, epe tarte horretan lasterketaren 20 kilometroak egin beharko dira. Distantzia, bakoitzak behar dituen saio guztietan osa daiteke, ez da zertan saio bakar batean egin behar. Helburua azaroaren 8an 20 kilometroak eginak izatea da. Lasterketaren erregistroa Runneak garatutako geolokalizazioan oinarritutako teknologia duen app-aren bidez egingo da.

Izena ematen duten pertsona guztiek oroimenezko domina ikusgarri bat jasoko dute. Dominaz gain, honako hauek ere jasoko dituzte: 5 euroko deskontua 2021eko Behobia-Donostia lasterketan, entrenamendu zerbitzu pertsonalizatua Runnea Academyn eta dortsalen eta lasterketaren babesle ezberdinek emandako ezusteko oparien zozketan sartuko dira. Lehen edizio honetan plazak 5000 parte-hartzailera mugatuta egongo dira eta izen-emateak 15 euroko prezioa izango du.

"Espainiako Itzulia hasi aurreko asteburua hotelaren okupazioa %100ekoa izan da"
Tania Pazos, Irungo Ibis hoteleko zuzendariondokoa

Datorren urterako hitzordua

Hortaz, Behobia-Donostia bertan behera gelditzen dela jakinarazi aurretik proban izena emanda zutenei aukera ezberdinak eskaini zitzaizkien. Irailaren 30a baino lehen galdetegia erantzun ez zuten horiei zuzenean izen-ematea 2021eko lasterketarako gorde zaie. Era berean, Fortuna kirol elkartetik, kirola egitea onuragarria dela kontutan hartuz, berme eta segurtasun neurri guztiak errespetatuz kirola praktikatzen jarraitzeko gonbidapena luzatu diete lasterketako parte hartzaileei, Behobia-Donostia lasterketaren hurrengo edizioa guztiok elkarrekin berriro gozatzeko.

Espainiako Itzuliak Irungo txoko adierazgarrienak zeharkatu zituen urriaren 20an

Irun Espainiako Itzuliaren abiapuntu izan zen urriaren 20an. 75. Espainiako Itzuliaren hasierako ibilbide neutralizatuak hiriko txoko adierazgarrienetatik igaro zen eguerdiko 12:55etatik aurrera, ondoren, atzerapen apur batekin 13:19etan abiadazko irteera egiteko.

Espainiako Itzulia Irundik abiatu aurreko egunetan txirrindularitzaren munduko hitzordu nazional garrantzitsuena Ficoba erakustazokako bazter guztien jabe egin zen. Horrela, urriaren 20an pelotoia Ficobako lautadatik abiatu eta ibilbide neutralizatuaren barnean Colón pasealekua, Santiago kalea, Junkaleko eliza, Urdanibia eta San Juan plaza eta Kale Nagusitik igaro zen.

Irundik abiatu eta Arrateko Santutegian izan zuen 2020ko Espainiako Itzuliaren lehen etapak helmuga. Jumbo-Visma taldeko Primoz Roglic, Espainiako Itzuliaren aurreko edizioko irabazlea, izan zen etaparen 173 kilometroak zeharkatu eta Arrateko gainera iristen lehena. Roglic-ek helmugara iristeko 1,2 kilometro falta zirenean hasi zuen etapako garaile izateko erasoa. Hortaz, Esloveniako txirrindularia izan zen 2020ko Espainiako Itzuliaren garailearen elastiko gorria janzten lehenea.

Roglicen atzetik, Team INEOS taldeko Richard Carapaz eta Israel Start Up Nation taldeko Daniel Martin izan ziren helmugara iritsi ziren hurrengo txirrindulariak. Horrela, mendia protagonista izaten ari da Espainiako Itzuliaren 1. etapatik, izan ere, pelotoia etaparen bigarren erdian Udana (3.), Kanpazar (3.) eta Elgetako (3.) gainetara igo baitzen 7 kilometroko luzera duen Eibarreko gainera igo aurretik.

Lekuko aldaketa

Lasterketaren lehen etapa hasi baino ordubete lehenago, Irungo udaletxeko Kapitulu Gelan 2021eko Espainiako Itzuliaren abiapuntuaren izango den Burgos hiriari lekukoa emateko ekitaldia egin zen. Edukiera murriztuko ekitaldian Irene Lozano Kirol Kontseilu Nagusiko Lehendakariak, José Antonio Santano Irungo alkateak, Daniel de la Rosa Villahoz Burgoseko alkateak, Fidel Herráez Burgoseko artzapezpikuak eta Javier Guillén Espainiako Itzuliko zuzendari orokorrak parte hartu zuten.

Ekitaldian Irungo Udalak Burgoseko ordezkariei 76. Espainiako Itzulia antolatzeko lekukoa eman zion. Izan ere, 2021. urtean 800 urte beteko dira Burgoseko Katedralaren eraikuntza lanak hasi zirenetik eta arrazoi horregatik Burgos datorren urteko Espainiako Itzuliaren abiapuntu izateko aukeratua izan da.

Argazkiak: Estudio Gover

Bidasoa XXI klubeko waterpoloko talde femeninoa denboraldi berria prestatzen hasi da

Konfinamenduko etenaldiaren ostean, waterpoloko talde femeninoa igerilekuko entrenamenduetara itzuli da. Etxeko entrenamendu fisikoen ostean, igerilekuko errutina berreskuratu eta berriro partiduak jolasteko prestatzen hasi dira. Bidasoa XXI klubeko Paula Aragón eta Iraia Oskila jokalariek denboraldi berriaren hasieraren inguruan mintzatu dira.

"Berriro partiduak jolasten hasteko irriketan nago"

Iraia Oskila, Bidasoa XXI klubeko waterpolo jokalaria

Nola bizi izan zenuten konfinamendu garaia?
Iraia: COVID-19aren zabalpena ekiditeko konfinamendua hasi zenean entrenatzaileak gure kabuz etxean entrenatzen jarraitzeko esan zigun. Horrela, etxean eskura geneuzkan material eta gauzekin gimnasioko ariketak egiteko moldatu ginen. Hortaz gain, entrenatzaile eta gainontzeko taldekideekin "Zoom" aplikazioaren bitartez bilerak egiten genituen. Etxetik entrenatu arren, gutxienez, guztiok batera entrenatzen ari ginelaren sentsazioa genuen.

Entrenamendu fisikoa beharrezkoa izan arren, igerilekuko entrenamenduen falta sentitu zenuten?
Paula: Bai, asko nabaritzen da. Normalean igerilekura egunero etortzen gara bertan entrenatu eta igeri egitera. Beraz, etxetik atera gabe egotea eta bakarrik entrenamendu fisikoak egitea asko nabaritzen da.

Nolakoa izan zen konfinamenduaren osteko itzulera?
Paula: Bakarrik hilabeteko epea izan genuen entrenatzeko eta, egia esan, oso gogorra izan zen. Bat-batean berriro egunero entrenatzera itzultzea ez zen erraza izan.

Berriro Bartzelonetaren mailako taldeen aurka lehiatzea erraza izan zaizue?
Iraia: Bai, sei taldeen arteko zozketa egin zen eta guri Bartzelonetaren aurka jokatzea egokitu zitzaigun. Inork ez zuen talde horren aurka jokatu nahi eta guri tokatu zitzaigun. Madrilen jokatu genuen eta oso partidu gogora izan zen, kategoriako talde indartsuena baita. Gauzak ahalik eta hoberen egiten saiatu ginen, baina, azkenean gauzak ez ziren guk nahi genuen bezala atera.

Partidua galdu arren, esperientzia eta gauza berriak ikasteko baliagarria izan zen?
Paula: Bai, azkenean, partidua gauzak nola egin behar ditugun ikasteko balio izan zigun. Gure entrenatzailearekin partiduko jokaldiak aztertu genituen eta denboraldi honetan hobeto jokatzeko zein gauza hobetu behar ditugun azaldu zigun. Orain, hurrengo entrenamenduetan ikasitakoa lantzen saiatuko gara.

Nola ikusten duzue denboraldi berria?
Iraia: Berriro partiduak jolasten hasteko irriketan nago. Egunero entrenamenduak izatea ondo dago, baina, astebukaeretan partiduak jolastea da gehien gustatzen zaiguna.

Noizko aurreikusita dago partiduen hasiera?
Paula: Entrenatzaileak esandakoaren arabera, urtarrilean hasiko gara beste kluben aurkako partiduak jolasten.

Nolakoak izan ohi dira zuen entrenamenduak?
Iraia: Astean bi egunetan entrenamendu fisikoak egiten ditugu. Hortaz gain, igeriketa lantzeko entrenamenduak dauzkagu ere. Bestetik, astean hiru edo lau egunetan taktikak lantzeko entrenamenduak dauzkagu, adibidez, atera jaurtiketak praktikatzeko.

Paula: Hortaz gain, astean behin gure aurkako partiduak jokatzen ditugu. Izan ere, momentuz behintzat asteburuetan partidurik jokatuko ez dugunez, gure artean jokatzen dugu ohitura ez galtzeko.

Zergatik aukeratu zenuten waterpolo kirola praktikatzea?
Paula: Ni orain dela 10-11 urte hasi nintzen waterpoloa praktikatzen. Igeriketa ikastaroekin hasi nintzen eta entrenatzaileak igeriketa kirolen beste modalitateren bat probatzera animatu ninduen.

Iraia: Ni Paula baino beranduago hasi nintzen, hau da, orain dela 7 urte. Bidasoa XXI klubean igeriketan hasi nintzen eta entrenamendu ordutegiak bateratzea ezinezkoa zela ikusi nuen arte. Aldageletan waterpoloko jokalariekin topatu ohi nintzen eta uretako kirolak gustatzen zaizkidanez, modalitate hori probatzera animatu nintzen.

Ezagutza edo errendimendu fisiko maila alturik behar da waterpolora jolasteko?
Paula: Ez. Guk edonor animatuko genuke waterpoloa probatu eta gurekin batera kirol hau praktikatzera. Waterpoloaren kasuan egia da igeriketa oso garrantzitsua dela, baina, egunero entrenatuz gero igeriketa maila on bat lortu daiteke.

Nola ikusten duzue emakume kirolarien egoera waterpoloaren barruan?
Iraia: Gure ligaren barnean 12 talde gaude eta Irundik hurbilen dagoen taldea Eibarreko Urbat kluba da. Egia da jende gutxik praktikatu eta ezagutzen duen kirola dela. Gure taldean neska ugari gaude eta batzuetan mutilekin elkartzen garen arren, oraindik ezinezkoa da waterpoloa ezagunagoak diren beste kirolekin alderatzea.

ESTUDIO FOTOGRAFÍA
GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Abian da Irun Aurrera bonu kanpainaren bigarren zatia

Erosketa bonuak urriaren 29tik abenduaren 4era trukatu ahalko dira hiriko establezimenduetan

Irungo Udalak Irun Aurrera erosketa bonuen bigarren kanpaina abiatu du. Urriaren 29tik aurrera egitasmora atxikitutako saltoki eta ostalaritza establezimenduetan bonuak trukatzeko aukera dago. Irun Aurrera bonuen lehen edizioak izandako arrakasta ikusi ostean, bigarren kanpaina honen bitartez Irungo merkataritza eta ostalaritzaren sektorea suspertzen jarraitu nahi da. Bonuen bigarren kanpainan 150 merkataritza gunek eta 20 ostalaritza establezimenduk baino gehiagok izena eman dute.

Irun Aurrera bonuen lehen kanpaina udako hilabeteetan zehar egin zen eta udazkenean egingo den bigarren kanpaina honen bitartez aurreko edizioko arrakasta errepikatzea bilatzen du udalak. Juncal Eizaguirre Hiriko Sustapenaren ordezkariak azaldu duenez, erosketa bonuen lehen edizioa 130 establezimenduk baino gehiagok izena eman zuten udan eta 8.000 bonu trukatu zituzten. Irun Aurrera ekintza planaren aurkezpenean iragarri zenez, udazkenean Irungo establezimenduetan trukatu ahalko diren bonuen bigarren kanpaina martxan jarriko da.

Bonuen bigarren kanpaina honek 150.000 euroko aurrekontua izango du eta, guztira, 10 euroko 15.000 bonu jarriko dira martxan. Miguel Angel Páez Ogasuneko ordezkariak azaldu duenez, "Irungo Udalak 6 milioi euroko aurrekontuarekin pandemiak hirian sortutako behar ekonomiko eta sozialak erantzuteko ahalegin berezia egiten ari da.

Kanpainaren lehen zatian egin zen bezala, bonuek ez dute inolako formatu fisikorik izango. Bonu bakoitzak 10 euroko balioa izango du eta kanpainara atxikitako establezimenduetan trukatu beharko da. Irundarrek bonuak erabiltzeko haien NAN zenbakia eman beharko dute eta programa baten bitartez pertsona bakoitzak erabilitako bonu kopurua zenbatuko da.

Irundarrak onuradun

Irun Aurrera bonuak Irunen erroldatuta dauden 16 urtetik gorako hiritarrek erabili ahalko dituzte. Guztira, Irundar bakoitzak 10 bonu erabiltzeko aukera izango du, horietako bi gehienez establezimendu bakoitzeko. Merkataritza establezimenduetan bonuak erabili ahal izateko gutxienez 30 euroko erosketa egin beharko da. Horrela, erosketa egiten duen irundarrak 10 euroko bonu bat erabiltzeko aukera izango du eta 20 euro ordaindu beharko ditu bakarrik erosketa burutzeko. Ostalaritzan, berriz, erosketa minimoa 20 eurokoa izan beharko da eta kasu horretan bezeroak 10 euroko ekarpena egingo luke soilik bere poltsikotik.

Zentzu horretan, Irun Aurrera bonuen lehen kanpainako baldintzak bere horretan mantenduko dira erosketa bonuen bigarren edizio honetarako. Hau da, ezingo da pertsona bat baino gehiagoren bonorik erabili erosketa bera ordaintzeko. Hau da, erosketa-txartel bakoitzak pertsona bakar baten bonuei lotuta egon beharko du. Gainera, ekimen honetatik kanpo geratzen dira alkoholdun produktuak soilik dituzten erosketak.

Establezimenduek urriaren 26ra arte izan zuten kanpainaren bigarren zati honetara batzeko aukera. Bonuak urriaren 29tik abenduaren 4era trukatu ahalko dira. Erosketa bonuen kanpainara atxikitutako establezimendu bakoitzak gehienezko bonu kopuru bat trukatu ahal izango du, kanpainara batzen diren negozio kopuruaren arabera. Irungo Udalaren webgunearen bitartez erosketa bonuen bigarren kanpaina honetara atxikitako merkataritza eta ostalaritza establezimenduen zerrenda kontsultatu ahalko da.

"Egitasmoa hasi eta lehen bi asteetan jatetxeko erosketa bonuak agortu ziren"

Sonia García, Felix Manso Ibarla jatetxeko arete-zuzendaria

Bonuen kanpainari atxikitako establezimendu bakoitzak bereizgarri bat izango du, bere lokalean jar dezan eta kanpainan parte hartzen duela ikus dadin. Lehen edizioan bezala, hiriko denda eta ostalaritza-establezimendu txiki guztiak batu ahal izango dira, 400 m2-tik gorako elikagaiak eta edariak saltzen dituzten lokalak, gasolindegiak, estankoak, enpresa handien filialak edo estatuan edo nazioartean ezarpen handia duten enpresak izan ezik.

Aurreko esperientzia lagun

Irungo Félix Manso jatetxeak eta Chocolates de Irun gozo-dendak Irun Aurrera bonuen egitasmoaren lehen zatian parte hartu zuten. Félix Manso Ibarla jatetxeko Sonia Garcíak eta Cholates de Irun gozo-dendako Aitziber Falquek azaldu dutenez, erosketa bonuen lehen kanpainarekin izandako esperientzia oso positiboa izan da, izan ere, bi establezimenduetan hiritarrentzat erabilgarri zituzten erosketa txartel guztiak agortu zituzten denbora gutxian. Sonia Garcíak adierazi duenez, "egitasmoa hasi eta lehen bi asteetan jatetxeko erosketa bonuak agortu ziren".

Sonia Garcíak azpimarratu duenez, Félix Manso Ibarla jatetxearen kasuan, ohiko bezeroez gainera, erosketa bonuen egitasmoari esker jende berria hurbildu da jatetxera. Chocolates de Irun gozo-dendako Aitziber Falquek azaldutakoaren arabera, bezeroak bonuen bigarren edizioaren esperoan daude, "erosketa txartelen bigarren edizioa martxan jarri aurretik bezeroak bonuengatik galdetzen hasiak dira". Chocolates de Irun gozo-dendan ia egunero bezero berriei harrera egiten diete eta denda ireki zenetik urtebete bete ez denez, Aitziber Falquek adierazi duenez horrelako ekimenak oso lagungarriak dira Irunen saltoki berriak aurrera ateratzen laguntzeko.

"Erosketa txartelen bigarren edizioa martxan jarri aurretik bezeroak bonuengatik galdetzen hasiak dira"

Aitziber Falque, Cholocates de Irun gozo-dendako jabea

Bonuen lehen edizioak izandako arrakasta ikusita, Irungo bi establezimendu hauek Irun Aurrera bonuen udazkeneko kanpainan parte hartzeko izen-ematea egin dute jada. Félix Manso Ibarla jatetxearen kasuan, bonuen bigarren kanpaina hau udazkenean zehar jatetxera bezeroak erakartzen jarraitzeko bereziki lagungarria izango zaiela espero dute. Sonia García areto zuzendariak azaldu duenez, "bonuei esker jendea segurtasun neurri guztiak errespetatuz etxetik ateratzera animatzen da eta gure jatetxean agintariek ezarritako prebentzio neurri guztiak errespetatzen ditugula ikusteko aukera dute". Aitziber Falquek gaineratu duenez, "udalak urteko garai ezberdinetan honelako ekimenak abiatzea eskertzekoa da beti".

San Vicente de Paul LH4

Kaixo Laura,

Gutun hau zuretzako da. Zu neska alaia, lagun ona, lasaia, bihotz onekoa, esanekoa, adeitsua eta pixka bat sentibera zara. Dakidanez, musika, laguntzea, lan egitea, irakurtzea eta gauza pilo bat gehiago egitea gustatzen zaizkizu. Nire ustez neska oso-oso ona zara, horregatik zure izaera gustuko dudanez, hiri **Dibertigarrira** elkarrekin joatea gustatuko litzaidake.

Hiri Dibertigarria oso-oso handia da, baita dibertigarria ere. Hor gauza pilo bat daude, adibidez: denda handiak eta txikiak, liburutegiak, etxeak, itsasoa.... Dendetan gauza pila bat saltzen dute, adibidez: barazkiak eta fruta gozo-gozoak, txokolatea, gozokiak azukrerik gabe... Liburutegi pila bat daude, handi-handiak. Liburu pila bat daude bai gazteentzako baita helduentzako ere. Etxeak txikiak eta handiak dira, oso politak dira barrutik eta kanpotik. Itsaso handi bat dago, kolorezkoa. Itsaso horretan arrainak, izurdeak... eta animali polit asko daude. Eskolak ere badaude eta oso handiak eta ederrak dira, han asko ikasten da. Animali asko daude eskolatik, adibidez: untxiak, katuak, txakurrrak...

Hiri Dibertigarrian gauza pila egin daitezke, adibidez: paseatu jolastu, etxean geratu eta mila gauza egin, dendara joan, liburutegira joan... Horregatik zurekin joatea gustatuko litzaidake. Ziur primeran pasatzen dugula.

Agur Laura,

Salma Khan Durrani

4.B

Denbora-pasak

7 emozio

M	H	A	R	Q	A	V	R	Z	P	Y	Q	D	D
T	M	G	V	C	D	U	F	N	O	A	H	N	I
K	Y	H	Y	B	P	U	A	Y	Z	L	D	O	B
A	L	G	Q	V	Y	U	Y	Q	T	X	N	K	E
R	N	Q	Z	H	G	J	R	U	A	M	L	W	R
X	K	C	O	B	A	P	V	D	S	O	T	S	T
E	N	L	R	R	I	S	Z	M	U	E	N	Z	I
V	A	M	I	K	P	U	E	Z	N	R	T	M	M
M	W	T	O	Q	S	H	I	R	A	Y	I	F	E
F	C	H	N	R	P	E	Q	G	R	Y	X	T	N
Y	N	F	T	R	Y	P	I	D	F	E	M	R	D
L	O	T	S	A	D	S	G	F	D	N	B	I	U
D	T	Y	U	B	I	G	Y	G	O	I	B	E	L
J	G	C	V	C	V	N	L	H	B	H	I	C	E

Zoriontsu, haserre, goibel, urduri, poztasun, lotsa, dibertimendu

				6				
4			5		3			2
		7					3	9
	3			7	5			
					4		6	
2	4	8					5	7
		2		8	6		7	5
	8		3			2		6
6			2					4

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

Bizhitza

Doinua: Irun badaukazu zerbait
Egilea: Igauri Lopetegi Amostegi

1)
Hauts batetik sortu ginen
hala kontatu didate
Horrelaxe egin omen
ginen munduaren parte
Bertan topatu ditugu
ezin konta disparate
Sagutxo perez, gabonak
dena nork sinets dezake
Gizarte konspiranoiko
baten gezurra konstante
Zoriona da helburu
baina gezurra bitarte
Besteen pentsanenduak
ikusi bagenitzake
Gezurra gizakiaren
beste errai bat litzake

2)
Koxkortzen hasitakoan
agudo gara nerabe
Ai zeinen garai polita
zein itsusia bestalde
Nik hau amaitu berri dut
agian amaitu gabe
Orain gerora begira
atsekabez atsekabe
Nahiz ta lanean ibili
mundu berri baten alde
Guztiok mantentzen gara
kapitalaren mirabe
Hola ez gara izango
geure buruaren jabe
Bizitzaren atarian
amaia ikusten gaude

3)
Gu biziko garen arren
kapitalaren menpeko
Mundura ez ginen sortu
beti triste egoteko
Bilatuz gero bizitza
gauza onez dago lepo
Lasai hau ez dut esaten
dagoena ukatzeko
Baina bizitza ulertzen
hasi naiz dagoeneko
Ezer gutxi daukagunez
dena daukagu lortzeko
Beraz ez gaiten larritu
ez bagabiltza perfekto
Hemendik ehun urtera
ez gaitu inork maiteko

4)
Horregatik ez pentsatu
bizitza denik iluna
Konplikatua da baina
poesiaren jarduna
Egiren bat bota nahian
gezurrari erantzuna
Geroa dugu urruna
ta iragana lurruna
Metafora itzela da
antitesiaren booma
Bizitzak ez du itzultzen
bertan ematen duguna
Beraz gozatu dezagun
gozatu dezakeguna
Finean hiperbole bat
da ta zoriontasuna

Txingudi Ikastola LH5-6



Ibon Azpilikueta, Cianotipia erakusketaren egilea:

“Erakusketen berezitasuna zure lanak beste norbaitekin konpartitzeko aukera izatea da”

Azaroaren 6ra arte Ibon Azpilikueta argazkilariak antolatutako erakusketa bisitatu ahalko da Martindozenea Gaztelekuan. Cianotipia izeneko erakusketak XIX. mendean deskubritutako teknika erabiliz argazkietan lortutako emaitzak erakusten ditu. Konfinamenduaren ostean GazteARTEan Expo programaren bitartez antolatutako lehen erakusketa da eta, nobedade gisa , erakusketa etxetik 360º-tan bisitatzeko aukera egongo da.

Nondik datorkizu argazkilaritzarekiko zaletasuna?
Argazkilaritza aspalditik nire bizitzan dagoen afizio handiena da. Pixkanaka hasi nintzen mundu honetan eta geroz eta gehiago murgiltzen joan naiz. Digitalean hasi eta, ostean, mundu analogikoan murgildu nintzen. Mundu analogikoarekin loturiko teknika desberdinak landu ditut, horien artean, Cianotipia izeneko teknika zaharra. Oso teknika erraza denez, teknikarekin jolastuz negatibo eta positibo bat zer diren ikasteko aukera ematen du, izan ere, emaitzak agerikoak eta azkarrak dira, hortaz, gazteekin jolasteko primerakoak.

Zure lehen erakusketa izan da hau?
Ez, bestelako erakusketak egin izan ditut, nahiz eta besteetan bidai bateko argazkiak edo erakutsi izan ditudan. Erakusketa hau egiteko aukera lortu nuen Irungo Gaztelekuan ekintzak antolatzen dabilen pertsona arduradunetako bat ezagutzen dudalako. Gazteentzako erakusketa eta tailerra antolatzeko aukera eman zidan eta horixe egin dugu.

Zer ikusi daiteke “Cianotipia” teknikaren izena daraman erakusketa honetan?
Bi obra handi daude. Batetik, paisai bat, argazki digital batetik transparentzien bitartez negatiboak sortu direnak eta transparentzien bitartez cianotipiari esker postiboetan bihurtu direnak. Luzeran metro eta erdiko paisai bat da. Bestetik, eguzki-lore baten koadroa dago, 80 argazki txikiz osatuta dagoena. Argazkiek banan banan ez dute inolako zentzurik, baina, konposizio zehatz honekin mosaiko bat osatzen dute. Gainontzekoak, tailerrean bertan sortutako lanak dira: erretratuak, paisaiak, hostoak, loreak, ... Argazki bakoitzak tratamendu ezberdinak dauzka, hau da, lixiban, ur oxigenatuan, infusioan edo bestelako likidoekin nahastu genituen, argazkietan lortu daitezkeen efektu desberdinak ezagutzeko.

Nolakoa izan zen gazteekin egindako tailerra?
Jakinda gaztelekua orain dela gutxi ireki zela eta orain jende gutxiago dabilela, neskatxo batzuk apuntatu ziren eta oso gustura ibili zirela uste dut. Beraiei momentuak ateratako argazkiekin eta nik emandakoekin lan egin genuen. Horrela, 1842. urtean sortutako teknika bat ezagutzeko aukera izan zuten eta gauzak politak egin daitezkeela ikusi zuten.

Erakusketaren nobedade nagusia, gaztelekuak etxetik erakusketa 360º bisitatzeko aukera eskaintzen duela da, ezta?
Aukera polita da, azken finean, Gaztelekuan erakusketa aurrez aurre ikusteko aukera dagoen arren, egindako lanak konpartitzeko beste modu bat dela uste dut. Momentuko egoera ikusita denok moldatu behar gara eta lehenago moldatzen dakienak besteengana iristeko aukera gehiago izango ditu. Hala ere, etxean bakoitzak bere kontu erakusketa birtualak antolatzea konplikatuagoa iruditzen zait, erakusketen berezitasuna zure lanak beste norbaitekin konpartitzeko aukera izatea da.

“Tailerraren egunean bertan egindako argazki eta esperimentuen emaitzak asko gustatu zitzaizkidan”

Antzinako teknika bat deskubritzeko aukera eskaintzen duzu erakusketaren bitartez?

Bai, nire burua mundu digitalaren erabiltzaile gisa kontsideratu arren, mundu analogikoak argazkilaritzaren beste ikuspuntu bat eskaintzen dizu. Hau da, ekintzak gehiago hausnartu eta polikiago egin behar dituzu. Beste mundu bat da. Gazteei teknika hau erakusteko aukera izatea oso polita da, negatibo bat zer den ezagutzeko aukera izan dezaten.

GazteARTEan Expo bezalako programen bitartez artista gazteen lana bultzatzea eskertzeko da?
Bai bai, noski. Horrelako ekimen eta bultzada guztiak eskertzekoak dira. Konfinamenduan zehar nik neuk etxean horrelako gauzak egin nituen, hortaz, honelako teknikak entretenitzeko modu desberdinak eskaini ahal dizkigute.

Erakusketa osatzen duten lanen artean, bereziki atsegin duzun lanik duzu?
Eguzki-lorearen argazkiaren emaitza asko gustatzen zait. Izan ere, bere txikitasunean zeresan gutxi duten argazkiekin, behar bezala elkartuz gero, nolako zentzua izan dezaketen asko gustatzen zait. Bestetik, tailerraren egunean bertan egindako argazki eta esperimentuen emaitzak asko gustatu zitzaizkidan ere.

Artista gisa, zeintzuk dira buruan dauzkazun hurrengo proiektuak?
Polaroid motako argazki-kamerak asko erabiltzen ditut eta haiekin lanen bat osatzeko gogoa dut. Hortaz gain, jada saltzen ez diren eta bigarren eskuko azoketan soilik eskuratu daitezkeen Polaroid zaharrak lortu eta zaharkitutako karretekin jolasteko zenbait ideia dauzkat. Beti bezala, gelditu gabe, saltsa batetik bestera.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Eusko Jaurlaritzako Bekak. 2020-2021 ikasturtea

Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzetarako 2020-2021 ikasturteko deialdia.

Epea: 2020ko azaroaren 9ra arte

Informazio gehiago: Euskadi.eus webgunearen diru-laguntzen atalean. Hortaz gain, iGazteren webgunean beka eta diru-laguntzen inguruko informazio gehiago aurkituko duzu.

Gazteartean erakusketa

Ibon Azpilikueta argazkilariaren Cianotipia erakusketa Martindozenea Gaztelekuan.

"Cianotipia": Zianotipia monokromoaren argazki-prozedura bat da, eta jatorrizkoaren kopia negatiboa lortzen du Prusiako kolore urdin batean, zeanotipo izenekoan. Erakusketa honetan zianotipian egindako lanak izango dira ikusgai. Artistak prestatutako irudiez gain, gazteek tailerrean egingo dituzten argazkiak ere erakusketari gehituko zaizkie aukera, ikusgai izango direlarik.

Ordutegia: Asteazken eta ostegunetan 17:00etatik 20:00etara eta ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 21:00etara.

Epea: Azaroaren 6ra arte.

Bisita birtuala: Erakusketa Gaztelekuan zuzenean ikusteko aukeraz gainera, iGazteko webgunean aurkituko duzun estekaren bitartez erakusketa etxetik 360°-tan bisitatzeko aukera egongo da Gaztelekuaren webgunean aurkitu daitekeen estekaren bitartez.

Euskadiko Gazteak Lankidetzan

Kartel lehiaketa: Zu izan zaitezke Euskadiko Gazteak Lankidetzan 2021 programaren kartelaren egilea eta trukean aparteko bidaia bat irabazi dezakezu.

Programari buruz ideiaren bat badaukazu, parte hartu! Konposizioa piktorikoa, fotografikoa, digitala eta abar izan daiteke.

Epea: azaroak 21.
Kartelen irudiak eta izen-emate orria honako posta elektronikora bidali behar dira: gazteaukera@gmail.com

Boluntariotza auzolandegiak

Boluntariotza-esperientzia bat bizi nahi duzu? Aurkitu zure proiektu solidarioa. Iraupena: 7 egun -3 aste

Prezioa: 130 € (ostatua, bazkaria eta boluntariotza asegurua barne)

Lekuak: Islandia, Turkia, Eslovakia, Katalunia, Madril... (munduko 60 herrialde baino gehiago aukeran)

Gaia: ingurumena, haur errefuxiatuekin lan egitea, birziklatzea...

Abian da Beldur Barik 2020

Aurtengo lehiaketak hiru lelo ditu: "Nik, etxean eta kalean Beldur Barik Jarrera", "Nik, bakarrik eta taldean Beldur Barik Jarrera" eta "Nik, gau eta egun Beldur Barik Jarrera". Urte berezi honetan ematen ari diren egoera guztietan Beldur Barik jarrera bultzatzea da lema hauen helburua.

Lehiaketa 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua dago, eta adierazpen artistikoak saritzen ditu. 2020ko edizio honetan, iazkoarekin alderatuta, ikus-entzunezko lanak bakarrik aurkeztu ahal izango dira, eta bideoak aurkezteko epea irailaren 14tik azaroaren 5era bitartean zabalik egongo da.

Sariak honako hauek izango dira: Kategoria bakoitzeko 400 euroko saria eta 200 euroko aipamen berezi bana banatuko dira. Horrez gain, 300 euroko herri-bozketaren bitartez parte-hartze saria emango da. Baita ikus-entzunezko ekoizpen onenari 300 euroko saria emango zaizkio. Aurten, lan sarituak 2020ko azaroaren 20an ezagutzera emango dira.

Programari buruzko informazio guztia web gunean (www.beldurbarik.eus) zein sare sozialetan (Facebook, Twitter, Instagram, Spotify eta Tiktok) aurki daiteke.



Azaroak

1

Katu erakusketa

Zer: XIV. Nazioarteko Katu Erakusketa.

Non: Ficoba Erakusketa Azokan.

Ordua: 10:00etatik 18:00etara.

Antolatzailea: AMOBS STAR.

3

Argitu tailerra

Zer: "Eskuratu zure argindar kontsumoaren datuak eta murriztu zure kontsumoa" tailerra.

Non: CBA KZ gunea.

Ordua: 18:30etan.

Izen-ematea: argitu@gipuzkoa.eus helbide elektronikoan edo 943112948 telefono zenbakira deituz.

7

Dantza: Códice

Zer: Komunikazioaren garapenaren bidaia gaur egungo gizartean dantza emanaldiaren bitartez.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Prezioa: 7,75 euro.

Sarrerak: Interneten bidez udal sarreren salmentarako webgunean, Irungo Turismo bulegoan edo Amaia KZaren leihatilan ikuskizunaren egun berean.

Iraupena: 50 minutu.

12

Hitzaldia - Trending topic arqueologia

Zer: ¿Que hace un rueda de molino en el monte? Canter@s en Jaizkibel.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 19:00.

Sarrera: Librea.

Hizlaria: Denis Álvarez.

14 eta 15

Opereta

Zer: Johann Straussek konposatutako "El Murciélago" opereta.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:00etan.

Prezioa: 25,90 eurotik 32,90 eurora.

Sarreren salmenta: Irungo Udalaren sarreren salmentarako webgunearen bitartez.

15era arte

Erakusketa: Félix Recondo.

Zer: Inguruan irundar jatorriko artista polifazetiko honen figura eta obraren inguruan egiten den lehen erakusketa.

Non: Amaia kultur zentroko erakusketa aretoan.

Ordua: Asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara.

Sarrera: Doakoa.

Denbora-pasen emaitzak

M	H	A	R	O	A	V	R	Z	P	Y	O	D	D
T	M	G	V	C	D	U	F	N	O	A	H	N	I
K	Y	H	Y	B	P	U	A	Y	Z	L	D	O	B
A	L	G	O	V	Y	U	Y	O	T	X	N	K	E
R	N	O	Z	H	G	J	R	U	A	M	L	W	R
X	K	C	O	B	A	P	V	D	S	O	T	S	T
E	N	L	R	R	I	S	Z	M	U	E	N	Z	I
V	A	M	I	K	P	U	E	Z	N	R	T	M	M
M	W	T	O	O	S	H	I	R	A	Y	I	F	E
F	C	H	N	R	P	E	O	G	R	Y	X	T	N
Y	N	F	T	R	Y	P	I	D	F	E	M	R	D
L	O	T	S	A	D	S	G	F	D	N	B	I	U
D	T	Y	U	B	I	G	Y	G	O	I	B	E	L
J	G	C	V	C	V	N	L	H	B	H	I	C	E

3	2	9	7	6	8	5	4	1
4	6	1	5	9	3	7	8	2
8	5	7	1	4	2	6	3	9
1	3	6	9	7	5	4	2	8
7	9	5	8	2	4	1	6	3
2	4	8	6	3	1	9	5	7
9	1	2	4	8	6	3	7	5
5	8	4	3	1	7	2	9	6
6	7	3	2	5	9	8	1	4

Produktu argazkilaritzan adituak

Internet bidez edo katalogoen bitartez gehiago saltzeko zure irudia hobetu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan

Argazkilari profesionala

Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
info@fotogover.com
www.fotogover.pro

ESTUDIO FOTOGRAFIA
GO VER™